



Ajangizko Udala



## AJANGIZKO UDALAK 2014KO ABUZTUAREN 28AN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-

### Batzarerratuak:

### Alkatea:

*Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna*

### Zinegotziak:

*Aiora Berrojalbiz Olaeta andrea  
Leire Garatxena Larrabe andrea  
Jesus M<sup>a</sup> Ajuria Odriozola jauna*

### Bitarteko Idazkaria:

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2014ko abuztuaren 28an eguerdiko 14:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin

### **1.- URRETXA INGURUKO HERRI BIDEA ETA BASERRIETARAKO SARRERAK EGOKITZEKO LANEN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-**

Esleipen proposamena ikusita, espedientea osatzen duten gainerako dokumentuak eta gaiarekin zerikusia duten bestelakoak kontutan hartuta, Udalbatzak aho batez

### **ADOSTEN DU:**

**Lehenengo.-** Urretxa baserri inguruko herri bidea eta baserrietarako sarrerak egokitzeko lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A. empresari esleitzea 190.987,93 euroko prezioan (gehi 40.107,46 € BEZ) eta hiru hilabeteko lan eperako, Administrazio-baldintza zehatzen agiriak jasotzen dituen gainontzeko baldintza eta kontratistak aurkeztutako proposamenaren arabera.

**Bigarren.-** Hamar laneguneko epean enpresak Administrazio-baldintza zehatzen agiriak 22. artikuluan jasotzen dituen dokumentuak aurkeztu beharko ditu udaletxean. Dokumentuak epean aurkeztuz gero esleipena behin betiko bilakatuko da. Dokumentazioa aurkeztuko ez balitz enpresak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da.

Kasu horretan esleipen prozedurarekin jarraituko da kontratazio organuak onartutako sailkapenaren arabera.



Ajangizko Udala



**Hirugarren.-** Akordio honen berri interesdunei ematea, jakitun izan daitezten eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

## **2.- MAIERREKO XEHETASUN AZTERLANAREN PLAN – BARRUKO II. ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2005eko ekainaren 3an ospatutako ohiko batzarrean, Maier S.Coop. enpresak aurkeztutako Xehetasun Azterlana behin betiko onartu zuen.

2012ko urtarrilaren 25ean, LKS enpresako María Rodríguez Agirre andreak aurkeztutako proposamenean oinarrituta, Xehetasun Azterlanaren plan barruko aldaketa onartu zen.

Ordutik ona, Xehetasun Azterlan horretan adierazitako parametroak izan dira hirilur hori arauten duten zehaztapenak.

2014ko uztailaren 18an, LKS enpresako errdakzio taldeko Ane Miren Martínez Barcedi andreak, Maier S.Coop.en ordezkari modura, 2005ean onartutako Xehetasun Azterlana puntualki aldatzeko proposamen berri bat aurkeztu zuen udaletxean, María Rodríguez berak LKS enpresaren bitartez eginiko dokumentuaren aldaketa aurkeztuz.

Aurkeztutako dokumentuaren arabera:

*El presente documento se plantea como Modificación Puntual del Estudio de Detalle del Suelo urbano de Maier S.Coop. para la modificación del área de movimiento de la edificación que además se ajusta al proyecto de urbanización pública que está redactando LKS.*

*Este documento no se debe entender como una modificación integral del Estudio de Detalle de 2005 ni como un nuevo Estudio de Detalle ya que el resto de parámetros urbanísticos de carácter vinculante recogidos en dicho documento seguirán vigentes a la aprobación definitiva de ese documento.*

Egun indarrean dagoen dokumentuak zera zehazten du:

*“Área de movimiento de la edificación:*

*La ordenación establece el concepto de Área de Movimiento de la Edificación, como respuesta lógica a las necesidades de flexibilidad y rapidez en las respuestas de generación de infraestructura fabril.*

*Se ha definido gráficamente (plano 7) el área de movimiento de la edificación, respondiendo a un crecimiento lógico de las instalaciones actuales, por lo que dicha área se ha delimitado geométricamente a partir de las edificaciones existentes.*

*En todo caso el retranqueo de la edificación a los linderos con espacio libre público o suelo no urbanizable supera siempre los 10m.*

*Así el Área de Movimiento de la Edificación:*

- Se adapta relativamente al edificio de MTC, reservando una pequeña área de ampliación.*
- Reserva una zona especializada en instalaciones.*
- Define una clara zona de crecimiento edificatorio hasta el este, para la implantación de instalaciones logísticas y de nuevos productos”.*



**Ajangizko Udala**



Proposatutako aldaketak, eraikitzeko egokia den azalera eremua definitzen du, Xehetasun Azterketako 7. planoan aldatuz. Beraz aldaketa, honako hiru planotan zehaztuta geldituko da:

5. plano: "Imagen final"
6. plano: "Zonificación"
7. plano: "Alineaciones y rasantes"

Honetaz gain, aurrez azaldutako "Área de movimiento de la edificación" puntua honela geratuko litzateke:

"Área de movimiento de la edificación"

*La ordenación establece el concepto de Área de Movimiento de la Edificación, como respuesta lógica a las necesidades de flexibilidad y rapidez en las respuestas de generación de infraestructura fabril.*

*Se ha definido gráficamente (plano 7) el área de movimiento de la edificación, respondiendo a un crecimiento lógico de las instalaciones actuales, por lo que dicha área se ha delimitado geométricamente a partir de las edificaciones existentes.*

*En todo caso el retranqueo de la edificación a los linderos con espacio libre público o suelo urbanizable supera siempre los 10m."*

Proposatutako aldaketak udal zerbitzu teknikoaren aldeko txostena jaso du.

Aipatutakoa kontutan hartuta eta alkatetzat egindako proposamena ikusita, Udalbatzak aho batez onartzen du:

**Lehenengo.-** 2005eko ekainaren 3an onartutako Maier S.Coop. enpresaren Xehetasun Azterlanaren II. modifikazio puntualari hasierako onarpena ematea.

**Bigarren.-** Ekainaren 30eko 2/2006 Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak araututakoa kontutan hartuta, azterlana informazio publikoan aurkeztea hogeita (20) egunez, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Gara egunkarian argitaratuz, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.

**Hirugarren.-** Ebazpen honen berri Maier S. Coop. enpresari ematea, tramite hutsezko ekintza izaki inolako errekurtsorik ez dagoela jakineraziz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da eguerdiko ordu biak eta laurdenetan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA  
Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA  
Saioa Pineda Aranburu